

# Hitzak eta krabelinak

Markel Txasko Galarraga



*enskar  
txanpla*

# Hitzak eta krabelinak

Markel Txasko Galarraga

Julene Azpeitia 28. ipuin lehiaketa

2015

1. saria

2015eko abenduan digitalizatutako ipuina.

© Markel Txasko Galarraga (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

*“edonola ere, amodioa salbuespena da beti”*

*Joseba Sarrionandia*

Hitz bakan batzuei gorrotoa zien. Higuina. Eta ez hitzen ingerada edo formagatik; eta ez hiztegi hanpatuetan har zitzaketen esanahiengatik; ez eta letren hurrenkerak sorrarazten zituen doinu eta klaska berdingabeengatik ere. Nazka zien eta kitto.

Hotza. Bi aldiz hotza. Hiru aldiz hotza. Iluna. Lau aldiz iluna. Arrastaka sartu dute. Estropezuka. Batak beso zurbiletik heltzen dio itsuski. Beste itzalak lepoa estutzen dio makurki. Burdinazko tenazak dira haien eskuak. Putasemeenak. Arnasarik ere ezin da hartu, behin eta berriz kolpatutako saihetsek ez dute uzten. Mina, oinazea, mina, oinazea, mina, oinazea, mina, oinazea, sufrikarioa, oinazea, sufrikarioa, mina. Ahitua. Txikitua, xehatua. Mina nauk, mina besterik ez nauk; oinaze puta. Pasilloa ez da bukatzen, ez dela bukatzen, bost aldiz iluna, seigarrenean hil nahi dut. Hil eta agur hil eta agur befiko, zanpa nazatela lur heze busti beltz alu honen kontra eta saihetsak akaba diezazkidatela, eta buruko min puta hau. Aurrealdean beste bi itzal eta haien ahotan barreak, itxi ezak ahoa! Eta harrapatzekotan itxi ezak ahoa, aitu! Nire ama Itziar da. Brau! Atea ireki dute. Ez ate horretatik ez. Pixa-koloreko baldosen kontra bota dute. Jaurtiki. Txuri fluoreszentea piztu dute. Argiak biziki itsutzen du. Itsu. Ama itzali argia mesedez; eman eskua.

Beste zenbait hitz, ordea, arrunt maite zituen. Eta ez hitzen ingerada edo formagatik; eta ez hiztegi hanpatuetan har zitzaketen esanahiengatik; ez eta

letren hurrenkerak sorrarazten zituen doinu eta klaska berdingabeengatik ere. Gustuko zituen eta kitto. Ez zekien zergatik. Batzuek barrentasunak kilimatzen zizkioten, bizkarreko ileak; neguko eguzkiak aurpegia zirikatzen duen bezala. Beste batzuek zaharkitutako nostalgia muskilarazten zioten, eta zuri-beltzeko oroitzapenetan murgiltzen zen.

Hitz bakoitza momentu bat zen, norbait; norbaiten ahotsa. Eta amarena aditzen zuen. Ondoloin maitia. Klik, eta ilun goxoak hartzen zuen logela. Eman eskua. Eta amak eman egiten zion. Irmoki estutuz eskua, amultsuki. Eta leihotik ilargia sartzen zen, eta haren argia ere bai, eta gau epeleko haize urdina, gortina hitsak mugiaraziz.

Haren ametsa beti izan baitzen idazle izatea. Atxaga. Osabak beti esaten zion, detaileetan erreparatu behar duk, detaileetan erreparatu eta ondo idatziko duk. Eta hark detaile guziei erreparatzen zien. Bistatu zituen Goiko kaleko eskale itsuaren ikusmen zorrotza eta apaizaren bekatuak, iruzurra, albistegietako gezurrak eta jendearenak, hipokrisia, kaleetako odola eta leihoetako malkoak, herriarenak.

Eta Koldok esaten zion, baina izengoitirik gabe ez duk posible arrakastarik izatea, fundamentuzko idazlea izan nahi baduk, izengoiti xarmant bat jarri behar diok herorren buruari; borobila. Eta hor hasten ziren biak ala biak izen-deitura xarmantak botatzen eta herensugedun istorioak asmatzen, ia garrasika, zirrararen zirraraz sudurzuloak zabal-zabal eginda. Koldori Tolkien gustatzen baitzitzaion. Tolkien eta Frodo eta Sam. Baina hori bakarrik hamahiru urte zituztelarik esaten zion, zeren eta gerora Koldori hitz egiteari utzi baitzion. Zer zen ba hura, koldar friki inuxente oilobusti bat ez bazen.

Kolpe bat. Mina. Bi kolpe. Oinazea. Hiru. Lau. Zazpi kolpe. Hamar. Itzal beltzak haren tenazetan plastiko gardenez ondo forratutako borra bat darabil goiti eta beheiti. Kopeta ubelean jotzen du behin eta berriz, behin eta berriz. Burua baldosa horituen kontra dauka. Edozein momentutan brau puskatuko zaio kaskezurra. Brau eta hamaika zati ttattarretan bihurtuko da buru gorri ubel hazia, eta zati ttattarrak odola eta odola eta odola, muinak nonahi. Hogei kolpe. Hogeita bi. Brau odola eta iluna eta betikoz deusez beltza, Argala eta amonaren begiak. Danba atea. Norbait sartu da. Gainera heldu zaizkit beste hiru Galindo lauso barrezka. Itzal batek bota handi gotorrarekin barrabiletan eman dio ostiko. Oinazearen auhena.

Koldo ez baitzen Urtzi. Eta Urtzi ez zen Koldo. Koldok baitzuen begirada gorria eta Urtzik urdina, zenbaitetan zuri itsua. Eguzkia eta ilargia bezala. Biak ala biak baitabiltza goian, antzeko paperean, horko ganga altu horretan barrena, baina batak argi bero ezia du eta besteak hil argi hotza.

Hala ere, Urtzi ez zen Koldo, eta hori nahiago zuen. Urtziri gustatzen baitzitzaion arriskua, eta honek ezpain-hortzetan uzten zuen burdin zaporea. Urtziri gustatzen zitzaion gehiegi ez pentsatzea eta mendekua. Urtziri gustatzen zitzaion taldeko babesak eta artaldea; etiketa, Eusko Label ardia. Gustatzen zitzaion ekintza, eta kaleko txakurrei harrika egitea. Eta haren aitaren Renault zaharrarekin abiadura hartzea Tximistarriko kamioan beheiti. Adrenalina. Eta irmo begiratuz, guk egiten ez badiagu nork egingo dik, esaten zion maiz, eta begiak itxiz zigarreta burugorriari zupada luze bat ematen zion ondotik.

Liluratu egiten zuen Urtziren determinazioak. Horregatik gustatzen zitzaion Urtzi, eta haren aitaren Renault zaharraren motorren burrunba epela. Nora zoaz? Galdetzen baitzion maiz Eiderrek, eta Urtziren aitaren Renault zaharrean

zihoazela erantzuten zion, portuko kresalarekin zigarreta batzuk erretzera. Baina ez zen behin ere egia izan.

Eiderrri ez baitzizaion Urtzi gustatzen. Ezta haren determinazioa ere, ezta arriskuaren herdoil zaporea. Beharbada hitz bakan batzuk gorrotatzen diren bezala gorrotatzen zuen Urtzi. Zeren Urtzirekin zihoala esaten zionetan Eiderrek haren aho hauskorra irekita mantentzen baitzuen, eta begirada triste luzea. Nahiz Eider bera ez ohartu.

Garrasika eta garrasika. Behin, bitan, lautan eta bederatzitan. Garrasika eta oihuka. Hirutan, bostetan eta hamaikatan. Oihuka eta oihuka hiru milatan, behin eta berriz. Itzal beltzak garrasika eta haren barrena ere bai; nor baino nor. Larru bizirik utzi dute. Haragi puska bat da lurrean botea. Gizaseme jaioberri minberatua. Garrasika eta garrasika eta ama hartu dutela. Ez ama ez zergatik ama nahi duzuen baina ama ez erregutzen dizuet ama ez mesedez ez. Ama hartu dutela eta hobeto zaindu dutela, borra zakar bat sartu diotela alutik eta odol gorrimina galanki, neskato batek bezala egiten duela maina. Ez mesedez. Mesedez. Malko luzeak beheiti doazkio eta gainean egin du pixa. Dar-dar. Hamaika milatan garrasiak eta kolpe ubelak. Zinta gris batekin aulki hotz batera lotu dizkiote hankak. Pistola bat aurrean. Pistola bat aurrean eta hartzeko. Hartzeko eta burmuinak lehertzeko eta barreiatzeko gela guzian barrena. Eskuetan du. Beruna da pistola, hotza eta gotorra; pisua. Katua ferekatu du behatzarekin. Uzi-a. Klik eta agur sufrikario puta hau, amaren negarrak eta putasemeon barre-algarak. Adio betikoz mundua eta Eiderren ahoa. Klik. Hutsa. Ez dago balarik, ez dagoela balarik eta ezin dudala, klik eta klik, akaba nazatela behingoz putakume zikin alu basati hauek, ni eta nire sufrikarioa.

Garrasiak ehun milatan eta algarak berrehun milatan, baina haren orroak denaren gainetik.

Guk egiten ez badiagu nork egingo dik, esan zion Urtzik, eta pistola ttiki bat eman zion lehenbizikoz. Oraindik ez zuen adin-nagusitasuna ematen zion zera hark eta urduritasunezko izerdi hotzarekin blaitu zuen pistola ttattarra. Azaroko euriak zarra-zarra bustitzen zituen kaleak, teilatu gorriak eta Renault zaharra. Haren burrunbarekin batean eztarrian goiti korapiloak nola estutzen zitzaizkion nabaritu zuen. Umetako bihurrikeria. Juantxoren auto gorri berria heldu dela eta Koldo har itzak arrautza arrosak eta prest? eta orain! eta egin ezak korri agudo eta korapilo berberak eztarrian goiti gero eta gehiago estutzen. Baina ez ziren arrautzak, ziren balak.

Txakurren auto zuria kantoi horren bueltan heldu zen, eta prest zegoen. Egin eta kitto. Egin eta kitto. Bi zakur ikusi zituen orduan uniforme urdinik gabe. Ttotto bat eta bi ttotto. Bibotedunak aitaren antz izugarria zuen. Aitaren irribarre atsegina eta haren besoen babesak. Baina bala horiak gorri bihurtu ziren haien bularretan, eta euriaren zarra-zarra goibela kristal hots.

Hotza motorraren burrunba epelak berdintzen zuen. Eta gero Eiderren bular leun samurrek ohean. Zer duzu buruan, Eiderrek, baina amets ilunek hartzen zioten gogoak eta ez zion erantzun. Bi ttotto izuz hormatuak eta beren alkandorak gorriz zulatuak. Buruko mina.

Esku bat eta beste eskua. Eskumuturrak. Aulkira lotu dizkiote eta poltsa handi garden bat parean. Begira zer egin diogun zure amari eta burutik sartu diote poltsa, lepoa lokarri batekin brauki estutuz. Itolarriak hartu dizkio zain lodiak eta burmuinak. Munduko airea bat-batean xurgatu dute eta aurpegi

ubela brau lehertuko zaio poltsa lausoan. Plastikoa ahosabairaino sartzen dela, ahosabairaino eta diafragmaraino eta ipurtzuloraino eta biriketako azken pizarreraino. Ito ito ito eta itoko naiz itoko naizela itoko naizela eta ezin dudala gehiago kendu ja poltsa puta hau kendu eta egin nahi dituzuen basakeria guziak baina kendu arren. Arren. Arren. Arren eta arren. Baina poltsak hor dirau eta Galindoen algarak ere bai, eta amaren oihu desesperagarriak, lur horituan larru bizirik poltsarekin iraulkatuz.

Eiderrek gutxitan egiten zituen galderak. Nahiago zuen erantzunik gabeko isiltasun lasaia eta haren sorbaldaren gainean pausatu burua, pentsakor. Mundua zein handi eta zein txikia postal urdin hartan, esaten zion, ze pozik bizi garen betiko tokian. Bi hosto bota zituen irailaren azkenak eta haien aurrean egin zuten hegan lurrera erori arte. Ilunabarrak itsasoa gorritz bustitzen zuen, eta Eiderren begiak. Baina hark ez zuen hitzik egin, eta ilargia iritsi arte egon ziren esperoan.

Eiderrek kostaldeko lurmutur guziak buruz ikasi nahi zituen segidan, eta kafe goxoa hartu lagunen artean. Eta erlojuak gaizki eginda daude, esan zion behin. Dira borobilak, eta beharko lukete luzeak eta zuzenak, infinituak. Itsasoko haizeak ferekatu zuen haren adatsa eta Eiderren begiak joan ziren lurmutur luze malkartsura. Zeren iduri baitu egunero egunak atzera errepikatzen direla. Direla egun berdinak eta tenore igualak eta dugula herenegun egin ez genuena egiteko beta, baina ez da egia. Ez da egia. Zeren orain esaten ari naizen guzia baita iragana eta itsasoan itzali berri den eguzkia ere bai. Eta momentu hauxe ez dugu, berriro, behin ere izango. Eiderrek zuzen begiratu zion, eta begiek ñirñirka egiten zioten, baina ez zekien itsasoa ikusten zen ala malko garratza. Ezin izan dira borobilak. Behar dute izan marra zuzen luze infinituak. Eiderren



ahora begiratu eta eskutik heldu zion; hitzik esan gabe. Eta irailak beste hosto bat bota zuen iraganera.

Brau! Poltsa kendu diote. Itolarrika. Dardarka. Txikitua eta suntsitua. Itzal lausoak aurrean eta ikara. Obeditzeko eta obeditzeko eta esateko dakien guzia. Baina haren ama Itziar dela, Itziar dela eta Itziar dela eta nehor salatu baino nahiago duela hila. Berriz eta berriz egin dio oihu beltz lausoak, eta minez puskatuko dutela hil arte. Lasa eta Zabala. Minez puskatuko dutela hil arte eta kontatzeko dena puto etarra. Hatzaparrekin barrabilak hartu dizkio, eta gabe geldituko dela deus esaten ez badu. Barrabilak estutzen ari da. Barrabilak bihurritzen ari dela eta ari dela eta oinaze zorrotz jasanezina bizkarrezurrean goiti. Eta orro, orro eta orro.

Irailaren azkenetan hostoak beti egiten ziren orbel Perrene kaleko bazterretan. Eta faroletako argiak goizeko zortzietan belzten ziren, argitasun ilun bat utziz. Joseba beti ateratzen zen etxetik kaleko argiak itzali baino ordubete lehenago, eta egunkaria erostera sartzen zen Apezarena ttikian. Eta Apezarenako Luis zaharrari begiaz keinu egin ondotik denda berdetik ateratzen zen irribarrez, egunkaria besapean. Gaueko zortzi eta erdiak aldean ailegatzen zen etxera, salbu ostiraletan, adiskideekin egoten baitzen Uralde iluneko zokoan basoerdi bat hartzen. Gustatzen baitzizaion lagunartea eta txiste txarrak kontatzea, eta baita ere bere tripa borobila esku potoloekin igurztea.

Joseba ttikitatik ezagutzen zuen. Aitarekin egiten baitzuen barre ostiral gauetan eta joaten baitzen mendira igandetan, eta Koldori eramaten zion merienda arratsaldetan eta zira gorri bat primaderan. Eta noizik behinka gonbidatzen zuen Koldorekin batean joateko Txindokira eta Gorbeiarda eta

Aiako Harrira. Eta asteartero Koldoren etxera bazkaritara joaten zenetan, makarroiak tomatearekin eta txorizo gorriarekin zeuden mahai gainean, Koldoren aita Josebak eginak.

Hala ere, nahiz Joseba ondo ezagutzen zuen, ez zuen haren berririk izan Urtzik esan zion arte, hire lana duk jakitea haren mugimendu bakoitza, eta haren ordutegia goitik beheiti. Zeren herori baitaiz haren aldean bizi dena eta hoberen ezagutzen duena. Begi beltz itsu zuriek begiratzen segitzen zioten, eta harri bat brau erori zitzaion sabelaren sakonean. Zeren guk maite baitiagu herria eta hura duk herriaren etsai. Udako beroaren usaina aditzen ahal zen eta izerdiarena. Hik egiten ez baduk nork egingo dik.

Horregatik pasatzen zituen egunak Perrene Kolean bueltaka, eta ikasi zituen Josebaren keinu guziak, manera guziak eta arropa guziak, eta zuen Koldoren begirada gorri bero berbera, eguzkiak bezala.

Eta pasa ziren aste franko orduak apuntatzen eta ikasten, eta zekien Josebak berak baino hobeto zein mugimendu izango zen egingo zuen hurrena. Pasa ziren aste franko Urtziri hori guzia eman zion arte, eta honek esan zion, lan ona eta gehiago ez kezkatu. Eta handik gutxira, goiz argi batez, egunkariko lehen orrialdean irakurri zuen izan zela akabatua bost tirorekin, eta danba lehertu zizkiotela burua, tripa borobila, esku potoloak eta irribarrea eta begirada beroa. Eta haren aurrean zegoela hogeituro urteko semea. Semearen aurrean hil zutela. Eta hil zutela semearen aurrean. Koldo hormatua eta mundua goitik beheiti. Eta semearen aurrean. Danba eta semea. Laztu zitzaizkion ileak eta azala eta bihotza. Korapilo bortitzak nonahi. Hozkia. Eta ikusi zuen Gandalf zulo handira erortzen garrasika eta Koldo ezinaren ezinez negarrez.

Derrepentean zarta lehertuko zaizkio barrabilak eta oinazearen oinazez hilko da. Kazkabarra. Dinbili-danbala, dinbili-danbala eta aulkitik askatu dute jipoika. Lokarri luze bat lotu diote lepora estuki. Eta lau hankatan jartzera behartu dute. Zakur miserable bat nauk, esaneko ttotto bat larru bizirik. Lau hankatan. Tira egin diote gogor sokatik eta lepoak aurrera egin dio. Agerian. Putaseme batek pixa egin dio aurpegian, eta begietan sartu zaio pixaren garratza, eta eztarrian beheiti. Goitigalea. Goitigalea. Goitigalea. Goitigalea eta goitigalea. Eta goitika egin du eztulka. Lerde gorri hori berdea ahotik lurrera. Eta zortzi ostiko saihetsetan bota gotorrekin.

Zer duzu buruan, Eiderrek. Baina isiltasunarekin gelditu ziren eta neguko hotzarekin. Ahoa irekita gelditu zitzaion eta begirada goibel betierekoa. Lurmuturrak handiagoa ematen zuen eta arriskutsuagoa; Eiderren begiak handik beheiti galdu ziren amildegira. Eta patrikan zuen pistola ttikira joan zitzaion eskua nahi gabe.

Minaren mina eta oinazearen oinazea. Gela txuriaren aieka batera bota dute ostikoz, eta soka batekin lotu dizkiote hankak eta eskuak; bizkarrera. Eskumuturrak orkatiletara eta orkatilak eskumuturretara, eta animalia ustel ehizatu bat. Umiliatua. Aurpegi ubela eta bular minberatua baldosen kontra. Eta itzal baten bota gotor pisua bizkarraren gainean zanpatu eta zanpatu.

Maiz joaten zitzaion eskua pistolara nahi gabe, eta begiak kale-kantoi batetik bestera. Baina egun hartan nabarmen traketsagoak ziren keinuak. Egunsentiaren atarian zegoen eguna, argitu gabea oraindik, eta azken saguzarrak hegaka iluntasunean. Pakete pisu bat zeraman gainean eta izerdia zerion kopetatik. Pausoa bizkortzen saiatzen zen baina ez zuen korrika egin nahi, zeren beharbada baitzen susmagarria.

Autoaren azpian sartu zuen burua. Iluna eta hezea eta hodi okerrak. Gasolina usaina. Aditzen ziren gaueko hots ttikiak eta zomorroen marraka. Atera zuen burua eta ikusi zuen Renault zaharra eta Urtzi begira. Saiatu zen joaten bizkor baina iruditzen zitzaion zihuala tiriki-tarraka eta nahi zuen bizkorrago joan. Iruditzen zitzaion bihotzak autoak baino lehenago egingo zuela eztanda eta eskua bularrera eraman zuen eta gero patrikara. Sartu zen Renault zaharrera eta Urtzik eman zion zigarreta bat, piztu zuen zupada bat emanez, eta esan zion, eta orain itxoitera.

Bota handia gero eta pisuagoa da, eta gero eta handiagoa. Birikak brau lehertuko zaizkio, eta brau lehertuko zaizkiola. Zapla eta zapla gogorki ipurmasailetan, eta zure amari hau gustatzen zaio, puta horrentzat postura hau hoberena eta sartzen genion horrela. Eta pistola hotza ipurtzulotik barrena. Odola. Eta mina eta mina. Leher diezazkidotela ipurtzuloa eta hesteak eta erraietako oinazearen mina eta bukatu ja astakeria puta honekin. Eta algarak, algarak eta algarak, eta algarak eta algarak. Klik pistolak, baina berriz ere balarik ez eta barreak ozenago eta haren orroak ere bai.

Orain itxoitera, baina pasa zen uste baino denbora gehiago eta zebilen izerditzen galanki. Urtzi zegoen bolantean eta zigarreta batekin eskuan, erre eta erre. Eta kristalak arrunt lurrunduak. Baina bat-batean aditu ziren zaratak eta ahotsak. Botoia eskuetan. Zanpatu eta danba. Zanpatu eta danba eta ihes. Botoia izerditan eta pareko autoa geldirik. Ihes eta ihes.

Korrika baldarrean oinetako gorriak, eta jertse arrosa marraduna. Haur ttikia korrika alaiki, eta bi motots haren buruan harekin batean saltoka. Kontuz Miren, kotxe batek harrapatuko zaituela. Eta J.J.ren burua agertu zen. Altua. Urtziri begiratu zion segituan, baina Urtzik aurrera begiratzen zuen irmoki. Berriz

ere neskatoarengana joan zitzaizkion begiak eta sabelean nabaritu zuen bertako zainak hausten ari zitzaizkiola banan-banan.

Neskatoa atzean jarri zuen eta gerrikoarekin lotu; eta muxu bat eman. Baina hura da herriaren etsaia eta exekutatu behar da eta guk egiten ez badiagu nork egingo dik. Eskuinetara zegoen pintadak ausardia eta ausarkeria eman zizkion. Eta haurrak segitzen zuen alaiki bere kasa hitz egiten. Urtzik irmoki begiratzen segitzen zuen autora eta J.J.k giltzak sartu zituen. Baina zegoen haurra eta haren irria eta inozentzia eta etorkizun luzea eta bizitza oso bat aurretik. Haurraren irria. Botoia. Botoia eta zanpatu eta ihes. Danba. Autoak eztanda egin zuen kalearen erdian eta iruditu zitzaizkion bi oinetako gorri airean.

Danba eta xurgatu zen mundua. Urtzik abiarazi zuen autoa eta ziren abiada betean, baina sorgorra zuen burua eta pentsamendu guziak, salbu neskatoaren aurpegia. Ahoan zuen lehorra eta damua eta korapilo estu-estu bat guzia ixten ziona. Eta belarrietan oraindik ere eztanda, danba, danba eta danba, behin eta berriz. Urtziri begiratu zion eta zuen begirada urdin hormatua, ilargia baino hilagoa.

Itzalak gainean eta gainean. Denak gainean eta zanpatuko dutela hil arte, zanpatuko dutela hil arte eta hezur guziak bitan hautsi arte, krak eta krak eta krak. Baina batek tenazetan poltsa atzera, eta brau sartu diote. Itolarria berriz ere baina orain bai hilko naizela orain ez dut jasango ezta segundo bat ere eta hemen itoko naiz itolarri artean itoko naizela airerik gabe betikoz poltsa lausoa besterik ez eta plastikoa zintzurraren muturreraino. Ihes egin dezagun urrutira, amesten dugunetik bi metrora, eta akatu ditzagun erlojuak, hondarretan ito arte; itsasoko haizeak ahotsaren hari meharra ebaki du eta

Eiderren adatsarekin jostatu. Eta haren begirada luzea tristeki. Garrasi egin nahi du, egin nahi duela baina ezin duela. Eta arren kendu plastiko puta hau kendu sufrikario hau gainetik eta nahi duzuen esango dizuet nahi duzuen baina kendu min hau gainetik mesedez orain orain eta dena esango dizuet dena dena baina kendu hau ja kendu hau. Urtzik begiak zabal-zabalik ditu Tximistarriko kamioan beheiti, abiadura betean, eta gozamina antzematen zaio ezpainetan. Plastikoa sartzen zaio zirrikitu guzietatik eta ezina, ezina, ezina eta ezina hamaika mila bider. Arren arren kendu hau eta salatuko ditut guziak Urtzi eta Txikia eta Argala eta Itziar bera eta denak eta denak eta salatuko dut Yoyes eta denak baina kendu hau mesedez nik ez dut krabelinik nahi ez dut krabelin putarik nahi porkulo hartzera krabelin gorriak nahi dut airea eta poltsa alu zikin hau kentzea aurpegitik eta lepotik kendu hau arren nahi duzuen baina itoko naizela bestela eta itoko naiz minez eta sufrikarioz eta oinazearen oinazez eta minez hamaika mila bider. Haragi puska plastikodun bat da lurrean botea eta minez iraulka. Lehertu eta lehertu eta mundua xurgatu. Ama iraulkatzen modu berdinean eta garrasika haren parean. Eskua eman; eta eman egin dio. Gau epeleko haize urdina sartu da eta ilargia ere bai, baina lainoak estali ditu ele guziak.